



GOIZUETAKO UDALA

Lanpostu hutsak lehiaketa oposaketa bidez betetzeko, aldi baterako enplegua egonkortzeko eta finkatzeko prozesu bereziaren deialdia. IZENDAPENAK

2022ko 237. Nafarroako Aldizkari Ofizialean, azaroaren 28an, argitaratu zen 2022ko azaroaren 21eko alkatearen ebazpena, zeinaren bidez deialdi bat onetsi baitzen, lanpostu hutsak lehiaketa-oposaketa bidez betetzeko, aldi baterako enplegua egonkortzeko eta finkatzeko prozesu bereziaren barnean, jarraikiz abenduaren 28ko 20/2021 Legeari (lege horrek hizpide ditu premiazko neurri batzuk, behin-behinekotasuna murrizteko enplegu publikoan). Deialdi horretako kalifikazio-epaimahaiak egindako proposamenekin bat etorritik, Goizueta Udaleko alkateak honako ebazpen hau eman du, zeinen bidez izendatzen baitira Goizueta Udalaren zerbitzura lan-kontratudun finko gisa arituko den izangaia.

–136/2024 Ebazpena, azaroaren 26koa, zeinaren bidez Ibai Zugarramurdi Elizalde lan-kontratudun finko izendatzen baita zerbitzu anitzetako lanpostuan aritzeko.

Lanpostuaz jabetzeko eguna 2024ko abenduaren 16an izanen da.

Aditza ematen da, behar diren ondorioak izan ditzan. Halaber, ohartarazten da erabaki horren aurka errekurtsio hauek jar daitezkeela:

- a) Berraztertze errekurtsioa, ebazpena eman zuen organoari zuzendua, hilabeteko epean, jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.
- b) Gora jotzeko errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.
- c) Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, zuzenduko zaiona Nafarroan administrazioarekiko auzietan eskumena duen organoari, bi hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Goizuetan, 2024ko azaroaren 26ean

Alkatea

Unai Miranda Berroeta.